



Jumping  
Monkey  
Hill

CHIMAMANDA  
NGOZI  
ADICHIE

itzulpena: Itziar Ultzurrun

BOOKTEGI



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

CHIMAMANDA NGOZI ADICHIE

# Jumping Monkey Hill

itzulpena:

Itziar Ultzurrun

Etxola guztiek lastozko teilatuak zituzten. Haien izenak, hala nola Babuinoen Aterpea eta Arantzurdearen Etxea, eskuz margoturik zeuden harrizko bidexketara jotzen zuten egurrezko ateen ondoan, eta leihoak zabalik uzten ziren bezeroak jakaranda-hostoen xuxurla eta itsasoko olatuen hots lasaigarri eta beti-batekoa adituz iratzar zitezten. Zumezko erretiluetan te fineko sortak. Goiz erdian, neskame beltz diskretuek oheak egiten zituzten, bainontziak garbitzen, alfonbrak xurgagailuaz arazten eta basaloreak ipintzen eskuz eginiko lorontzietan. Ujunwari bitxia iruditu zitzaion Idazle Afrikanen Lantegia han egitea, Jumping Monkey Hillen, Lurmutur Hiriaren kanpoaldean. Izena bera ere ez zectorren lekuarekin bat, eta oporgune hari bapo-bazkatuen atsegintasuna zerion; Ujunwak turista atzerritarrak irudikatzen zituen toki klasea zen hura: lasterka ibiliko ziren harat-honat, muskerrei argazkiak atereaz, eta ondoren etxera itzuliko ziren ia ohartu ere gabe musker burugorri baino jende beltz gehiago zegoela Hegoafrikan. Geroago, lekua Edward Campbellek aukeratu zuela jakinen zuen; zenbait asteburu igaroak zituen han, Lurmutur Hiriko Unibertsitateko irakaslea zelarik.

Baina Ujunwak ez zekien hori Edward—agure bat, udako kapela buruan, irri egitean lizun koloreko bi ebakortz erakutsi zizkiona— aireportura bila etorri zitzaion arratsaldean. Musu eman zion bi masailetan. Galdetu zion ea arazorik izan zuen aurreordaindutako txartelarekin, ea axola zitzaion ugandarraren zain gelditzea, hegazkina laster iristekoa zen-eta, ea goseak zegoen. Esan zion emaztea, Isabel, lantegiko gainerako partaide gehienen bila joana zela jada, eta Simone eta Hermione adiskideak, haiekin batera Londresetik etorriak zirenak ordainpeko langile gisa, ongietorri-bazkaria prestatzen ari zirela oporgunean. Edward eta Ujunwa iritsieren eremuko banku batean eseri ziren. Edwardek ugandarraren izena zeraman kartela sorbaldan bermatu eta azaldu zion zeinen hezea zen Lurmutur Hiri urteko sasoi hartan, zeinen pozik zegoen lantegiko antolaketa zela eta. Hitzak luzatzen zituen. Britainarrek dottore esaten dioten doinu hura zuen, nigeriar aberats batzuk antzeratzen saiatzen diren mintzaera, haiek nahi gabe ere azkenean barregarri suertatzen dena. Ujunwak jakin nahiko zukeen ea Edward izan ote zen bera lantegirako hautatu zuena. Segur aski, ez; British Council-ek egin zuen deialdia, eta izangai hoberenak hautatu gero.

Edward pitin bat mugitu, eta hurbilago eseri zitzaion. Galdetu zion ea zertan aritzen zen Nigerian. Ujunwak aharrausi zabal bat itxuratu zuen, gizona isil zedin desiratuz. Edwardek galdera errepikatu eta galdetu zion ea lanean baimena eskatu zuen lantegira etortzeko. Adi-adi begiratzen zion. Hirurogeita bost eta laurogeita hamar urte bitartean izanen zituen. Ujunwak ezin zion aurpegian adina igarri; begitarte atsegina zuen baina formagabea, Jainkoak, gizon hura sortzean, pareta baten kontra zapaldu eta azpegiak aurpegi osoan barreiatu izan balizkio bezala. Lauso irri egin eta erantzun zion Lagos-tik joan aurretixe galdu zuela lana –banku batean– eta, beraz, ez zuela baimena eskatzeko premiarik izan. Aharrausi egin zuen berriz. Gizonak gehiago jakiteko irrikan zegoela iduri zuen, eta berak ez zuen gehiagorik kontatu nahi, beraz, begiak goititu eta ugandarra zetorrela ikusi zuenean, arindua hartu zuen.

Ugandarrak logaletua zirudien. Hogeita hamar urte eta koska zituen, aurpegi karratukoa zen eta azal ilunekoa, eta ile matazatua biribil kizkurretan tenkatua zeraman. Burua makurtu zuen Edwarden eskua bere bi eskuekin estutu zuenean eta, gero, biratu eta kaixo bat murmurikatu zion Ujunwari. Renault-aren aurreko jarlekuan eseri zen. Oporgunerainoko bidea luzea zen, muino malkartsuetan nahierara zizelkaturiko errepideetan barna zihoan, eta Ujunwa kezkatu zen Edward ez ote zen sobera zaharra hain azkar gidatzeko. Arnasari heldu zion lastozko teilatudun etxolen eta bidexka artoski zainduen multzora iritsi arte. Emakume horail irribarretsu batek bere etxola erakutsi zion, Zebraren Gordelekua: zerudun ohea eta izpiliku usaineko izarak. Ujunwa, lipar batez ohean eseri ondoren, maleta husten hasi zen, leihotik begira noizean behin, zuhaitzen hostotzen artean kukuturiko tximinoen bila.

Tamalez, ez zegoen bakar bat ere, esan zien Edwardek partaideei gero, itzalkin arrosen azpian bazkaltzen ari zirela, barandara hurbildutako mahaietan, itsaso turkesa-kolorea ikusteko modua izan zezaten. Edwardek partaideak banan-banan seinlatu eta aurkezpenak egin zituen. Hegoafrikako emakume zuria Durbangoa zen eta gizon beltza, berriz, Johannesburgekoa. Gizon tanzaniarra Arushakoa zen, gizon ugandarra Entebbekoa, emakume zimbabwetarra Bulawayokoa, gizon keniarra Nairobikoa, eta emakume

senegaldarra, gazteena, hogeita hiru urtekoa, Paristik etorria zen hegazkinez, unibertsitatean ikasten ari baitzen han.

Edwardek azkena aurkeztu zuen Ujunwa:

–Ujunwa Ogundu gure parte-hartzaile nigeriarra da eta Lagosen bizi da.

Ujunwak mahai ingurura so egin zuen jakin nahian ea haietako norekin moldatuko zen ongi. Aukerarik handienak emakume senegaldarrak zituen: begietako distira lotsagabe hura, doinu frankofonoa eta xerlo zilar-kolore haiek hileko rasta lodietan. Emakume zimbabwetarraren rastak luzeagoak eta meharragoak ziren, eta haietan zintzilikaturiko kauri-maskorrek txin-txin egiten zuten burua batera eta bestera mugitzen zuenean. Hiperaktiboa zirudien, gerakaitza, eta Ujunwak pentsatu zuen bazitekeela hura gogoko izatea, baina soilik alkohola gogokoa zuen eran: gutxika. Keniarra eta tanzaniarra itxura arruntekoak ziren, ia bereizezinak: kopeta zabaleko gizon garaiak, bizarrak zarpail, mahuka motzeko atorra estanpatuak soinean. Pentsatu zuen gogoko izan zitzakeela mehatxagarri ez den jendea gogoko dugun modu axolagabean. Hegoafrikarrei zegokienez, ez zekien seguru: emakume zuriak aurpegi hagitz serioa zuen, umore zantzurik eta makillajerik gabekoa, eta gizon beltzak santujale egonarritsua zirudien, aterik ate doazen Jehovaharen Lekuko horietako bat bezala, atea muturrean ixten dioten aldiro irribarrez erantzuten duena. Ugandarrari, berriz, higuina hartu zion aireportuan bertan, eta are gehiago orain Edwarden galderei ematen zien erantzun lausengarriengatik eta Edwardekin soilik mintzatzeko eta beste partaideei ez ikusia egiteko aurrerantz makurtzeko zuen moduagatik. Gainerakoek, berriz, ez zioten ia hitz egiten. Denek zekiten Idazle Afrikarrendako azken Lipton Sariketa irabazia zuela, hamabost mila liberako diru-saria hartuta. Ez zioten hizpiderik eman beren hegaldiei buruzko solas gizabidetsuan.

Belar finez apainduriko oilasko krematsua jan ondoren, botila distiratsuetan zetorren ur gasduna edan ondoren, Edward ongiatorri hitzak esateko zutitu zen. Begiak txilotzen

zituen solastatzean, eta buruko ile barbana kulunka higitzen zitzaion itsasoko usaina zekarren haize leunean. Lehenik, bazekitena esan zien: lantegia bi astekoa izanen zela; berari bururatu zitzaiola, baina, jakina, Chamberlain Arts Foundationek gogotsu finantzatzen zuela, Idazle Afrikarrendako Lipton Sariketa berari ere bururatu zitzaion eta fundazio bereko jende atseginak finantzatu zuen bezalaxe; espero zela guztiek ipuin bana idaztea, gero segur aski Oratoryn argitaratuko zena; ordenagailu eramangarri bat zegoela etxola guztietan; ipuina lehen astean idatziko zutela eta bigarren astean denon artean berrikusiko zituztela; eta ugandarra arituko zela lantegi-buru. Gero, bere buruaz mintzatu zitzaion, nola zeramatzan berrogei urte afrikar literaturari buru-belarri emana, Oxforden piztu zitzaion bizitza osoko grinari. Ugandarrari begiratzen zion behin eta berriz. Ugandarrak baiezko sutsuekin erantzuten zion haren begirada bakoitzari. Azkenik, emaztea aurkeztu zuen, Isabel, denek jada ezagutzen zuten arren. Animalien eskubideen aldeko ekintzailea zela azaldu zien, eskarmentu handikoa Afrikan, eta Botswanan bizi izan zela nerabezaroan. Harro zirudien emaztea zutitu zenean, Isabelen dotoretasun garai eta lirainak bere irudiaren gabeziak berdinduko balitu bezala. Ilea gorri hits kolorekoa zuen, xerloek aurpegia zedarriztatzeko maneran moztua.

—Edward, ni aurkeztea ere —esan zuen ilea laztanduz batera.

Ujunwak, halere, imajinatu zuen Isabelek nahi izanen zuela Edwardek bera aurkeztea, bazitekeela senarrari oroitarazi izana ere: tira, laztana, gogora zaitetz ni behar bezala aurkezteaz bazkarian. Tonu samur batez esanen zion.

Biharamunean, gosaritan, Isabelek tonu hori bera baliatu zuen Ujunwaren ondoan eseri eta esan zuenean ezen segur aski, holako hezur-egitura dotore harekin, errege-erregina nigeriarren etorkikoa behar zuela. Ujunwari hasteko eta bat bururatu zitzaion Isabeli galdetzea ea inoiz behar izan zuen errege-erreginen odola Londresko adiskideen itxura ederra azaltzeko. Ez zion galdetu, baina horren orde esan zuen —ezin-eta eutsi— baietz, printzesa bat zela, leinu zahar baten ondorengoa, eta bere arbasoetako batek merkatari portugaldar bat harrapatu zuela hamazazpigarren mendean eta ezti-mamitan atxiki zuela,

errege-kaiola batean. Ahabi-zukua edateko isildu zen, eta edalontziari begira irri egiteko. Isabelek, pozarren, esan zuen beti asmatzen zuela errege-odolari antzematen eta espero zuela Ujunwak babestu eginen zuela isileko ehizaren kontrako bere kanpaina eta ikaragarria zela, ikaragarria, jendea zenbat tximino hiltzen ari zen, galzorian zeudela, eta ez zituztela jan ere egiten, ehiza-jakiei buruzko berriketa hori guztia gorabehera, tximuen lotsariak baizik ez zituztela erabiltzen, sorginkerietarako.

Gosalondoan, Ujunwak amari dietu zion eta oporguneaz eta Isabelez mintzatu zitzaion eta kontent jarri zen amak isilka barre egin zuenean. Telefonoa eskegi eta ordenagailu eramangarriaren parean eseri zen, eta pentsatu zuen amak denbora luzea zeramala egiaz barre egin gabe. Luzaroan egon zen han, sagua alderik alde mugituz, erabaki nahian pertsonaiari izen arrunten bat jarriko zion, Chioma edo gisakoa, edo izen exotikoagoren bat, Ibari edo gisakoa.

Chioma amarekin bizi da Lagosen. Ekonomiako graduduna da Nsukkako Unibertsitatean, Gazteen Zerbitzu Nazionala amaitu berri du, eta ostegunero The Guardian erosi, enplegu eskaintzak arakatu eta CVa bidaltzen du manila koloreko gutun-azaletan. Asteak ematen ditu inongo berririk gabe. Azkenean telefono-dei bat jasotzen du eta elkarrizketa bat proposatu diote. Galdera gutxi batzuk egin eta gero, gizonak kontratatuko duela esaten dio, eta gela zeharkatu, neskaren atzean gelditu, sorbaldak inguratu eta bularrak zanpatzen dizkio. «Kirten hori! Ez zara gauza zeure burua errespetatzeko ere!» marmar egiten du Chiomak eta ospa egiten du. Hurrengo asteetan, isiltasuna nagusi. Amaren boutiquean laguntzen du. Gutun-azal gehiago bidaltzen. Hurrengo elkarrizketan, emakumeak, Chiomak sekula entzundako doinurik zurienean, baboenean mintzatuz, esaten dio atzerrian ikasitako norbaiten bila ari dela, eta Chioma ia barrez irteten da handik. Hurrengo asteetan ere isiltasuna nagusi. Hilabeteak dira ez duela aita ikusi, baina haren bulego berrira joatea erabakitzen du, Victoria uhartera, lana aurkitzen laguntzen ahal dion galdetzera. Hitzordua tirabiratsua da. «Zergatik ez zara ba lehenago etorri?», galdetzen dio aitak haserre plantak eginez, Chiomak bai baitaki aitarendako errazagoa dela haserretzea; errazagoa da jendearekin haserretzea haiek mindu ondoren. Aitak dei



batzuk egiten ditu. Billete sorta mehe bat ematen dio, berrehun naira kiribilean bilduak. Ez dio amaz galdetzen. Idazmahaian Emakume Horiaren argazkia dagoela ohartzen da Chioma. Amak ongi deskribatu zuen: «Oso azal argikoa da, mestizoa ematen du, eta kontua da ederra ere ez dela, haren aurpegiak papaia hori umela dirudi».

Jumping Monkey Hilleko jantoki nagusiko argi-armiarma hain beheiti zegoen zintzilik non Ujunwak eskua luzatu eta ukitu ahal izanen baitzuen. Edward zamau zuriz jantzitako mahai luzearen mutur batean eserita zegoen, Isabel bestean eta partaideak bien artean. Zurezko zoru sendoek kraska egiten zuten burrunbatsu zerbitzariak haien inguruan zebiltzala kartak banatu bitartean. Ostruka-xerrak. Izokin ketua. Oilaskoa laranja-saltsan. Edwardek kartsuki gomendatu zien ostruka jateko. Zeharo soraaa-ga-rri-a zen. Ujunwari ez zitzaion gustatu ostruka jateko ideia, jakin ere ez zekien jendeak ostrukak jaten zituenik, eta hala esan zuenean, Edwardek gustura barre egin eta esan zuen ostruka, jakina, Afrikako oinarritzko jaki bat zela. Gainerakoek ostruka eskatu zuten eta Ujunwaren oilaskoa, limoitsuegia, iritsi zenean, bere buruari galdetu zion ez ote zukeen ostruka eskatu behar. Behikia zirudien, nolana ere. Bizitza osoan edandakoa baino alkohol gehiago edan zuen, bi kopa ardo, eta baretzen zela sentitu eta senegaldarrarekin hizketan hasi zen ile beltz naturala zaintzeko modurik hoberenei buruz: silikonazko produkturik ez, karite-gurina erruz, bustita baizik ez orraztea. Ardoari buruzko solas puskak aditu zizkion Edwardi: Chardonnay ardoa ikaragarri aspergarria zen.

Ondoren, partaideak glorietan bildu ziren –ugandarra izan ezik, bereiz eseri baitzen Edwardekin eta Isabelekin–. Intsektu hegalaria esku-zartez uxaka eta ardoa edaten aritu ziren, eta barrez, eta bata besteari adarra jotzen: zuek keniarrak izugarri otzanak zarete! Zuek nigeriarrak izugarri oldarkorrek zarete! Zuek tanzaniarrek ez duzue janzteko gustu onik! Zuei senelgadarrei burua jan dizuete frantziarrek! Sudango gerraz mintzatu ziren, Afrikako idazleak bildumaren gainbeheraz, liburuez eta idazleez. Ados egon ziren Dambudzo Marechera txundigarria zela, Alan Paton ezpainestua zela, Isak Dinesen barkaezina zela. Keniarrak doinu europar arrunt bat bereganatu eta, zigarreta-zupaden artean, Isak Dinesenek kikuyu hurrez esandakoa errepikatu zuen, buruz atzeratuak

bilakatzen zirela bederatzi urte betetzean. Barre egin zuten denek. Zimbabwetarrak esan zuen Achebe aspergarria zela eta ez zuela batere txukun idazten, eta keniarrak esan zuen hori sakrilegio bat zela eta ardo-kopa kendu zion, harik eta zimbabwetarrak bere hitza jan eta barreka esan zuen arte Achebe sublimea zela, jakina. Senegaldarrak esan zuen oka egitear egon zela behin Sorbonako irakasle batek esan zionean Conrad egiazki zure aldean zegoela, bera ezgai balitz bezala bere kabuz erabakitzeko nor zegoen bere aldean. Ujunwa saltoka hasi zen gora eta behera, mordoilokeriak lardaskatzen Conraden afrikarrak antzeratzeko, ardoaren arintasun goxoa sumatuz buruan. Zimbabwetarrak balantza egin eta ur iturrira erori zen, eta farfuilaka irten zen, rasta kizkurrak blai, esanez arrain bat bihurka zebilela iruditu zitzaiola. Keniarrak esan zuen hori erabiliko zuela bere istoriorako –arraina oporguneko iturri dotorean– ez baitzekien batere zertaz idatzi. Senegaldarrak esan zuen bere istorioa bere egiazko istorioa zela eta gaia zela nola deitoratu zuen neskalagunaren heriotza, eta nola atsekabe hark adorea eman zion gurasoengana joateko, nahiz eta haiek txantxa arin baten moduan hartzen zuten orain hura lesbiana izatea eta gizon gazte egokien familiei buruz mintzatzen segitzen zioten. Hegoafrikar beltzak asaldatuta eman zuen «lesbiana» aditzean. Zutitu eta aldendu egin zen. Keniarrak esan zuen hegoafrikar beltzek aita ekartzen ziotela buruan: Izpiritu Sainduaren Berpizkundearen elizara joaten zen eta ez zuen kalean jendearekin hitz egiten, ez zirelako salbatuko. Zimbabwetarra, tanzaniarra, hegoafrikarra eta senegaldarra beren aitez solastatu ziren denak ere.

Ujunwari begiratu zioten eta ohartu zen bera zela deus ere esana ez zuen bakarra, eta istant batez ardoak ez zion burua lausotu. Sorbaldak goititu eta marmarka esan zien bere aitari buruz ezer gutxi zegoela esateko. Pertsona arrunta zela.

–Baduzu harekin harremana? –galdetu zion senegaldarrak, ezetz uste zuela adierazten zuen goxotasun batez, eta haren doinu frankofonoak Ujunwa sumindu zuen estreinakoz.

–Bai, badugu harremana –esan zuen indar bare batez–. Aitak erosten zizkidan liburuak haurra nintzenean eta hark irakurri zituen nire lehen poema eta istorioak.

Etenaldi bat egin zuen, eta denak begira gelditu zitzaizkion eta erantsi zuen:

–Harritu egin ninduen zerbait egin zuen. Mindu ere bai, baina gehienbat harritu.

Bazirudien senegaldarrak galdera gehiago egin nahiko lituzkeela, baina iritziz aldatu eta ardo gehiago nahi zuela esan zuen.

–Zure aitari buruz idazten ari zara? –galdetu zion keniarrak eta Ujunwak EZ tinko batez erantzun zion, ez baitzuen sekula sinetsi fikzioa terapiatarako balio zuenik. Tanzaniarrak esan zion fikzioa terapia zela, terapia mota bat, axolarik ez jendeak zer zioen.

Gau hartan Ujunwa idazten saiatu zen, baina begiak lanbrotuak zituen eta buruko mina ere bazuen; beraz, ohera joan zen. Gosalondoan, ordenagailu eramangarriaren parean eseri zen, te-katilua eskuan.

Chiomak dei bat jasotzen du Merchant Trust Banketik, aitik deitu duen lekuetako batetik. Zuzendaritza batzordeko lehendakaria ezagutzen du. Neska itxaropentsu dago; ezagutzen dituen banku-langile guztiek bigarren eskuko Jetta politik gidatzen dituzte eta etxebizitza politik dauzkate Gbagadan. Zuzendariordeak egiten dio elkarrizketa. Beltzarana da, eta itxura ederrekoa, eta haren betaurrekoek diseinu dotoreko logotipoa daramate armazoian eta, mintzatzen zaion bitartean, Chiomak etsi-etsian desiratzen du erreparatu diezaion. Ez dio erreparatzen. Zuzendariordeak esaten dio marketinerako kontratatu nahiko luketela eta horrek esan nahi duela kanpora irtetea eta kontu berriak ekartzea. Yinkarekin arituko da lanean. Probaldian hamar milioi naira ekartzeko gauza bada, bermatua izanen du lanpostu finkoa. Chiomak baiezkoa egiten du buruaz bestea mintzatu bitartean. Gizonen arreta jasotzera ohituta dago eta muturtuta dago zuzendariordeak ez diolako begiratzen gizonak emakumeari begiratu

ohi dion moduan, eta ez du ongi ulertzen zer esan nahi duen kanpora irtetea kontu berriak lortzera harik eta bi asteren buruan lanean hasten den arte. Gidari uniformedun batek alhaji baten etxera eramaten ditu Chioma eta Yinka, Ikoyira, jeep ofizial klimatizatu batean –Chiomak eserlekuaren larru leunaren gainetik lerratzen du eskua, handik ateratzeko gogorik gabe—. Alhajia lagunkoi eta adeitsu agertzen da bere irriaz, bere esku-keinuez, bere barreaz. Yinka zenbait aldiz joana da hura ikustera eta gizonak neska besarkatu eta barre eginarazten dion zerbait esaten dio. Chiomari begiratzen dio.

–Hau hagitx apaina da –esaten du.

Zerbitzari batek xanpain kopa izoztuak zerbitzatzen dizkie.

Alhajia Yinkari mintzatzen zaio baina Chiomari begiratzen dio maiz. Gero hurbiltzeko eskatzen dio Yinkari eta azaltzeko zertan diren interes altuko aurrezki kontuak, eta orduan magalean esertzeko eskatzen dio eta ez al du uste besotan hartzeko behar beste indarra duenik ala? Yinkak dio jakina baduela eta magalean esertzen zaio, irri lasaia ezpainenetan. Yinka txikia da, eta azal argikoa; Chiomari Emakume Horia oroitarazten dio.

Amak kontaturiko horixe da Chiomak Emakume Horiaz dakien guztia. Behin, arratsalde motel batean, amak Adeniran Ogunsaya karrikan zuen boutiquera sartu zen Emakume Horia. Amak bazekien nor zen, bazekien Emakume Horiak urtebete zeramala senarrarekin, bazekien senarrak Emakume Horiaren Honda Accord autoa eta Ilupejuko etxebizitza ordaindu zituela. Baina ama bere senetik atera zuena zera izan zen: Emakume Horia dendara etortzeak, oinetakoei begiratzen aritzeak eta egiaz senarrarena zen diruaz ordaindu asmo izateak. Horrenbestez, amak tirakada bat eman zion Emakume Horiak bizkarreraino dingilizka zeraman ileordeari eta oihu egin zuen «senar-lapurra!», eta gainerako saltzaileak hurbildu eta zaplaztekoka eta joka aritu

zitzaizkion, harik eta Emakume Horia autorantz lasterka ihesi joan arte. Chiomaren aitak jakin zuenean, amari garrasi egin eta esan zion kaleko emakume basa horietako baten gisara jokatu zuela, eta alferrik lotsarazi zituela senarra, bere burua eta emakume errugabe bat. Gero etxetik joan zen. Chioma Gazteen Zerbitzu Nazionaletik itzuli eta ohartu zen aitaren armairua hutsik zegoela. Izeba Elohor, Izeba Rose eta Izeba Uche, denak etorri ziren eta amari esan zioten: «Prest gaude zurekin harengana joateko etxera itzul dadin erregutzera, edo gu joanen gara eta zure izenean erregutuko diogu». Chiomaren amak esan zuen: «Inolaz ere ez. Ez naiz harengana joanen erreguka. Aski da». Izeba Funmi iritsi zen eta esan zuen Emakume Horiak medizina batekin estekatua zuela senarra eta ezagutzen zuela hura aska zezakeen babalawo on bat. Chiomaren amak esan zuen: «Ez, ez naiz harengana joanen». Amaren boutiquea huts egiten hasi zen, Chiomaren aitak Dubaiko oinetakoak inportatzen lagundua ziolako beti. Beraz, prezioak behehitu zituen, iragarkiak paratu Joyn eta City Peoplen, eta Aban eginiko oinetakoak ekarzen hasi zen. Chiomak zapata haietako pare bat darama alhajiaren egongelan eseri eta Yinkari begira dagoen goiz horretan, Yinka, gizonaren magal zabalean jarririk, Merchant Trust Bankeko aurrezki-kontuen onurez hizketan ari den bitartean.

Hasieran, Ujunwa ahalegindu zen ez ohartzeko Edwardek maiz begiratzen ziola gorputzari, gizonaren begiak ez zeudela sekula bere aurpegiari so, baizik eta beheitiago. Lantegiaren egunak errutina bati atxiki zitzaizkion, gosaria zortzietan, bazkaria ordu batean eta afaria seietan luxuzko jantokian. Seigarren egunean, bero sapa ikaragarria egiten zuela, Edwardek aztertu beharreko lehen ipuinaren kopiak banatu zizkien: zimbabwetarrak idatzitakoa. Partaide guztiak terrazan eserita zeuden eta, Edwardek orriak banatutakoan, Ujunwa jabetu zen itzalkin azpiko eserleku guztiak hartuak zeudela.

—Ez zait axola eguzkitan esertzea —esan zuen zutitzeaz batera—. Nahi duzu ni altxatzea eta zu hemen jarri, Edward?

–Nahiago nuke zu etzatea –esan zuen. Une hura likatsua izan zen, lodia; txori batek karranka egin zuen urrutian. Edward irribarrez ari zen. Ugandarrak eta tanzaniarrak baizik ez zioten aditu. Orduan ugandarrak barre egin zuen. Eta Ujunwak barre egin zuen, zeren, esan zion bere buruari, barregarria eta asmotsua zen, ongi pentsatuz gero. Bazkalondoan, pasieran ibili zen zimbabwetarrarekin eta, itsas ertzean maskorrak batzera gelditu zirenean, Edwardek esandakoa kontatu nahi izan zion Ujunwak. Baina zimbabwetarrak adia galdurik ematen zuen, ohi baino isilkorragoa; bere istorioaz kezkatua izanen zen segur aski. Ujunwak arratsean irakurria zuen. Idazkerak apaingarri gehiegitxo zituela iruditu zitzaion, baina gogoko izan zuen istorioa eta gustatutako gauzak eta iradokizun arretatsuak idatzi zituen bazterretan. Istorio familiar eta dibertigarri bat zen, Bigarren Hezkuntzako irakasle hararetar bati buruzkoa: apaiz mendekostearrak esaten dio ez duela emaztearekin seme-alabarik izanen harik eta emaztearen umetokia lotu duten sorginen aitorpena erdietsi arte. Senar-emazteak sinetsita daude sorginak aldameneko bizilagunak direla eta, goizero, otoitzean aritzen dira ozenki, Izpiritu Sainduaren hitzezko lehergailuak jaurtiz hesiaz gaindi.

Biharamunean, zimbabwetarrak pasarte bat irakurri ostean, isilune labur bat egon zen jangelako mahaiaren inguruan. Gero, ugandarrak hitza hartu eta esan zuen gihar handiko prosa zela. Hegoafrikar zuriak buruaz baiezkua egin zuen gogotsu. Keniarra desados agertu zen. Esaldietako batzuetan literatura-kutsua lortzeko ahalegina hain handia zen, non esaldiek ez zuten zentzurik, esan zuen, eta haietako bat irakurri zuen. Gizon tanzaniarrak esan zuen istorioari osoki begiratu behar zitzaiola eta ez zatika. Bai, bat etorri zen keniarra, baina zati bakoitzak zentzua izan behar zuen osotasunak zentzua izan zezan. Orduan Edwardek hitz egin zuen. Idazkera anbizio handikoa zen, baiki, baina istorioari berari galdera hau zerion: «Eta zer?». Bazen zeozer izugarri démodé kontakizun hartan, aintzat hartuz gero Mugabe zitalaren azpiko Zimbabwen gertatzen ari ziren gainerako gauza guztiak. Ujunwak tinko begiratu zion. Zer esan nahi zuen Edwardek démodéekin? Nola izan zitekeen démodé hain benetakoa zen istorio bat? Baina Ujunwak ez zion Edwardi galdetu ea zer esan nahi zuen eta keniarrek ez zion galdetu eta ugandarrak ez zion galdetu eta zimbabwetarrak rastak aurpegitik baztertu besterik ez zuen egin, kauri-maskorrekin txin-

txin eginaraziz. Gainerako guztiak isilik gelditu ziren. Laster, aharrausika hasi, elkarri gabon esan eta beren etxoletara joan ziren.

Biharamunean, ez zuten aurreko gauekoaz hitz egin. Aipatu zuten zeinen arolak zeuden arrautza nahasiak eta zeinen misteriotsuak ziren jakaranda ostoak gauez, leihoen kontra firi-fara. Afalondoan, senegaldarrak bere istorioaren pasarte bat irakurri zuen. Gaua haizetsua zen eta atea itxi zuten zuhaitzen zurrunbiloaren hotsa entzun ez zedin. Edwarden piparen kea gelaren goialdean zabaltzen zen. Senegaldarrak hileta-eszena baten bi orrialde irakurri zituen, sarri geldituz ura hurrupaka edateko, eta emozioa handitu ahala gero eta doinu markatuagoz mintzatzen zela, t oro z bihurraraziz. Ondoren, Edwardengana biratu ziren denak, are ugandarra bera ere, bai baitzirudien ahantzia zuela bera zela lantegiko burua. Edwardek pipa pentsakor zupatu zuen esan aitzin homosexualei buruzko istorio mota horiek ez zirela, zinez, Afrikaren erakusgarri.

–Zer Afrika? –bota zuen Ujunwak zakar.

Hegoafrikar beltza mugitu egin zen aulkian. Edwardek pipa zuputzen segitu zuen. Gero, elizan geldirik egon nahi ez duen umeari begiratuko litzaiokeen maneran begiratu zion Ujunwari eta esan zuen ez zela hizketan ari afrikanista Oxford-kume baten gisara, baizik eta egiazko Afrikaren zalea zen aldetik, eta ez zuela nahi mendebaldeko ideiak Afrikako bazterretan inposatzerik. Zimbabwetarra, tanzaniarra eta hegoafrikar zuria buruari eragiten hasi ziren Edward mintzatu bitartean.

–2000. urtean bizi gara, jakina, baina zein neurritaraino da afrikarra inork bere familiari esatea homosexuala dela? –esan zuen.

Senegaldarrak frantses ulergaitz batean eztanda egin zuen eta, minutu batez borborka mintzatu eta gero, esan zuen:

–Senegaldarra naiz! Senegaldarra naiz!

Edwardek frantsesezko jario berean erantzun zion, eta, gero, ingelesez erantsi, irribarre samur batez:

–Uste dut Bordeleko ardo bikain hortatik gehiegitxo edan duela.

Eta partaideetako batzuek isilka barre egin zuten.

Ujunwa izan zen alde egiten lehena. Bere etxolatik hurbil zegoela, norbait deika ari zitzaiola aditu eta geratu egin zen. Keniarra zen. Zimbabwetarrarekin eta hegoafrikar zuriarekin zegoen.

–Goazen tabernara –esan zuen keniarrek.

Ujunwak bere buruari galdetu zion non egonen ote zen senegaldarra. Tabernan, ardo bat edan zuen eta besteei entzun zien hizketan, nola esaten zuten Jumping Monkey Hilleko gainerako bezeroek –zuriak guztiak ere– mesfidati begiratzen zietela lantegiko partaideei. Keniarrek esan zuen bezperan bikote gaxte bat geldi geratu zela, eta apur bat atzera egin, bera igerilekuko bidexkatik hurbiltzen ari zitzaiela. Hegoafrikar zuriak esan zuen berak ere begirada fidakaitzak jasoak zituela, agian kente-oihaleko kaftanak janzen zituelako beti. Han eserita, kanpoko gau beltzari begira-begira, edariak bigunduriko ahotsak adituz inguruan, Ujunwak auto-gorrotozko eztanda bat sumatu zuen urdailaren azpialdean. Ez zukeen barre egin behar Edwardek esan zuenean «Nahiago nuke zu etzatea». Ez zen barregarria izan. Ez zen batere barregarria izan. Gorrotagarria iruditu zitzaion, eta gorrotagarria iruditu zitzazkion, baita ere, haren aurpegiko irria eta erdizka ikusi zizkion



hortz berdexkak eta nola begiratzen zion beti bularrei aurpegiari begiratu ordez, nola joaten zen Edwarden soa bere gorputzean behetik gora eta nola, halere, hiena ero baten moduan barre egitera behartu zuen bere burua. Ardo-kopa erdi hustua laga eta esan zuen:

—Edward beti ari zait gorputzari begira.

K

eniarrak eta hegoafrikar zuriak eta zimbabwearrak adi-adi begiratu zioten.

—Edward beti ari zait gorputzari begira —esan zuen berriro.

Keniarrek esan zuen lehenbiziko egunetik garbi zegoela Edward bere emazte hezur-azal horren gainean igoko zela azpikoa Ujunwa izan zedila desiratuz; zimbabwearrak esan zuen Edwarden begiei lizunkeria zeriela Ujunwari begiratzen zion aldiro; hegoafrikar zuriak esan zuen Edwardek sekula ez ziola emakume zuri bati hala begiratuko Ujunwarekiko begirunerik gabeko irrika sentitzen zuelako.

—Guztiok ohartu zarete? —galdetu zien—. Guztiok ohartu zarete?

Traizionatua izanaren sentimendu bitxi bat nagusitu zitzaion. Altxatu eta bere etxolara joan zen. Amari deitu zion, baina ahots metalikoak «markatu duzun zenbakia ez dago erabilgarri une honetan, mesedez, saia zaitetz geroago» esaten zuen etengabe eta, beraz, telefonoa eskegi zuen. Ezin izan zuen idatzi. Ohean etzan eta hain luzaroan egon zen esna, non lokartu zenerako eguna argitzen ari baitzuen.

Gau hartan, tanzaniarrak bere istorioren pasarte bat irakurri zien, Kongoko hilketei buruzko istorioa zen, paramilitar baten ikuspegitik kontatua, bortizkeria likitsez beteriko

gizona bera. Edwardek esan zuen Oratoryko lehen istorioa izanen zela, beharrezkoa zela, premiazkoa, jakin beharreko gauzak kontatzen zituela. Ujunwak pentsatu zuen The Economistetik hartutako artikulu bat zirudiela, karikatura moldeko pertsonaiez betea. Baina ez zuen esan. Bere etxolara itzuli zen eta, urdaileko minez egon arren, ordenagailu eramangarria piztu zuen.

Chioma han eserita dagoela, Yinkari begira-begira, zeina alhajiaren magalean eserita baitago, irudipena du antzezlan bateko jokalaria dela. Antzezlanak idazten zituen Bigarren Hezkuntzan. Chiomaren gelakoek antzerki lan bat taularatu zuten eskolaren urteurrena ospatzeko eta, amaieran, ikusleek txaloaldia zutik jo eta zuzendariak esan zuen «Chioma gure izarra izanen da etorkizunean!». Aita han zen, amaren alboan jarrita, esku-zartaka eta irriz. Baina Chiomak esan zuenean unibertsitatean literatura ikasi nahi zuela, aitak erantzun zion ez zela bideragarria. Hala esan zuen, «bideragarria». Esan zion beste zerbaite ikasi beharko zuela eta beti segitzen ahalko zuela idazten, beste horren osagarri. Alhajiak hatz bat darabil samurki Yinkaren besoan gora eta beheara esaten duelarik: «Baina badakizu Savanna Union Bankek jendea bidali zidala joan den astean». Yinkak irribarrez segitzen du eta Chiomak jakin nahiko luke ez ote dioten masailek minik emanen. Ohe azpian metalezko kutxa batean dauden narrazioez oroitzen da. Aitak denak irakurri zituen eta, batzuetan, bazterretan idazten zuen: Bikaina! Klaxea! Oso ongi! Nahasia! Aitak erosten zizkion nobelak; amak uste zuen nobelak irakurtzea denbora alferrik galtzea zela eta sinetsita zegoen Chiomak ikasliburuak besterik ez zuela behar.

—Chioma —dio Yinkak eta neskak gora begiratzen du.

Alhajia hizketan ari zaio. Gizonak ia lotsatua dirudi eta haren begiek ez diote begietara begiratzen. Yinkarenganako erakusten ez duen herabetasunaz ari zaio Chiomari.

–Esaten ari naiz hagitz apaina zarela. Nolatan ez zaitu honezkero handi-mandiren batek esposatu?

Chiomak irri egin, eta ez du deus esaten. Alhajiak dio:

–Merchant Trustekin tratua eginen dudala erabaki dut baina zu izanen zara nire kontaktu pertsonala.

Chiomak ez daki zer esan.

–Jakina –dio Yinkak–. Bera izanen da zure kontaktua. Ongi zainduko zaitugu. Mila esker, jauna!

Alhajia zutitu, eta esaten du:

–Etorri, etorri, badauzkat lurrin on batzuk, Londresko azken bidaian ekarriak. Baten bat emanen dizuet etxera eramateko. –Gelara sartzen hasi eta biratu egiten da–. Etorri, etorri biak.

Yinka atzetik joaten zaio, Chioma zutitu egiten da. Alhajia neskarengana biratzen da berriz, haren zain. Baina Chioma ez da gizonarengana joaten. Aterantz egin, ireki eta eguzki-argi distiratsura irteten da, eta Jeeparen ondotik igarotzen da: gidaria barnean dago, atea zabalik, irratia entzuten.

–Neska? Neska, zeozer gertatu da? –oihu egiten dio.

Ez dio ezer erantzuten. Oinez segitzen du, ibili eta ibili, burdin-langa garaia zeharkatu, karrikara atera eta taxi bat hartzen du bulegora joateko, bere idazmahai ia hutsean dagoena jasotzera.

Ujunwa itsasoaren dunbotsarekin iratzarri zen, korapilo urduri bat sabelean. Ez zuen bere istorioa irakurri nahi gauean. Ez zuen gosaltzera joan nahi, ezta ere, baina joan egin zen, halere, eta egunon orokor bat esan zion irribarre orokor batekin. Keniarraren ondoan eseri zen eta gizona harengana makurtu eta xuxurlatu zion Edwardek senegaldarrari esan berri ziola bere zilbor biluziarekin amets eginga zuela. Zilbor biluzia. Ujunwak senegaldarrari so egin zion: te kikara leunki eramaten ari zen ezpainetara, baikor, itsasoari begira. Ujunwak bekaitzez begiratu zion emakumearen konfiantza bareari. Atsekabetuta sentitu zen, halaber, jakiteagatik Edward beste bati ere ari zitzaiola mezu iradokitzaileak igortzen eta bere buruari galdetu zion zer esanahi ote zuen erresumin horrek. Sinetsi ote zuen gizonaren begirada likitsak berarendako baino ez zirela? Deseroso sentitu zen horretaz pentsatzean, baita gauean bere ipuina irakurri beharra zuela pentsatzean ere, eta, arratsaldean, bazkalondoa luzatzen aritu zen eta senegaldarrari galdetu zion ea zer erantzun zuen Edward haren zilbor biluziaz mintzatu zenean.

Senegaldarrak sorbaldak goititu eta esan zuen ezen, gizonak zenbat-nahi amets eginda ere, lesbiana zoriotsua izaten segituko zuela eta ez ziola zertan deus ere esan.

–Baina zergatik ez dugu ezer esaten? –galdetu zuen Ujunwak. Ahotsa ozendu zuen, besteei begira—. Zergatik ez dugu sekula ezer esaten?

Elkarri begiratu zioten. Keniarrak zerbitzariari esan zion ura epeltzen ari zela eta ea ekarriko zituen mesedez izotz gehiago. Tanzaniarrak Malawiko zer eskuldetakoa zen galdetu zion zerbitzariari. Keniarrak galdetu zuen ea sukaldariak ere malawiarrak ote ziren, zerbitzari guztiek hangoak ziruditen eta. Orduan zimbabwetarrak esan zuen bost axola zitzaiola sukaldariak nongoak ziren Jumping Monkey Hilleko bazkaria higungarria zelako,

den-dena haragia eta esne-gaina. Kontu gehiago jaurti ziren turrustan eta Ujunwak ez zekien garbi nork esan zuen zer. Imajinaezina zela bilkura afrikar bat arrozik gabe eta ea zergatik egon behar zuen debekatua garagardoa edateak bazkal-mahaian, soil-soilik Edwardek uste zuelako ardoa egokiagoa zela eta zortzietan gosaltzea goizegi zela, axolarik ez Edwardek esateak ordu «egokia» zela eta haren piparen usaina okaztagarria zela eta ea erabakitzen zuen behingoz zer erre nahi zuen eta zigarretak biltzeari uzten zion pipa erdizka zuela.

Hegoafrikar beltza baino ez zen isilik gelditu. Abaildua zirudien, eskuak magalean batuta, harik eta esan zuen arte Edward inor mindu nahi ez zuen agure bat baino ez zela. Ujunwak garrasi egin zion:

–Jokabide klase horrengatik akabatu zintuzteten, eta beltz hutsendako barrutietara eraman, eta baimen-agiriak izatera behartu zeuen herrian ibili ahal izateko!

Istantean isildu eta barkamena eskatu zion. Ez zuen halakorik esan behar. Ez zuen ahotsa altxatu nahi izan. Hegoafrikar beltzak sorbaldak goititu zituen, konprenituko balu bezala deabruak bere lana eginen zuela beti. Keniarra Ujunwari begira zegoen. Ahots apalean esan zion Edwardez gain beste zerbaitengatik ere zegoela haserre eta Ujunwak begirada aldendu zuen bere buruari galdezka hitz egokia «haserre» ote zen.

Geroago, oroigarrien dendara joan zen keniarrarekin, senegaldarrarekin eta tanzaniarrarekin, eta boli faltsuzko bitxiak saiatu zituzten. Tanzaniarra zirikatu zuten bitxiarik zuen interesagatik (gay izanen zen bera ere?). Tanzaniarrak barre egin eta esan zuen bere aukerak mugarik gabeak zirela. Gero, serioago, esan zuen Edwardek harreman onak zeuzkala eta agentea bilatzen ahal ziela Londresen; ez zegoen inolako beharrik haren aurka jotzeko, inolako beharrik aukerei atea ixteko. Berak, behintzat, ez zuen irakasle lanpostu gogaikarri batean bukatu nahi Arushan. Guztiei hitz eginen balie bezala ari zen, baina Ujunwari begira-begira.

Ujunwak lepoko bat erosi, jantzi eta gustatu egin zitzaion nola ematen zuen hortz-formako zintzilikari zuriak bere zintzurrean. Gau hartan Isabelek irribarre egin zuen zintzilikaria ikustean.

–Nahi nuke jendea ohartuko balitz boli faltsuak egiazkoa dirudiela eta animaliak bakean utziko balitu –esan zuen.

Ujunwak poz-pozik irribarre egin eta esan zuen, izan ere, benetako bolia zela eta dudan egon zen erantsi behar ote zuen berak akabatu zuela elefantea, errege-ehizaldi batean. Isabelek txundituta zirudien; gero, minduta. Ujunwak plastikoa laztandu zuen. Lasaitu beharra zuen, eta bere buruari hori errepikatu zion behin eta berriz bere istorioa irakurtzen hasi bitartean. Ondoren, ugandarrak hitz egin zuen lehenik eta oso istorio sendoa zela esan zuen, oso sinesgarria, eta Ujunwari haren tonuaren segurtasuna are harrigarriagoa iruditu zitzaion haren hitzak baino. Tanzaniarrak esan zuen ederki islatzen zuela Lagos, usainak eta zaratak, eta sinestezina zela zeinen antzekoak ziren Hirugarren Munduko hiriak. Hegoafrikar zuriak esan zuen gorroto zuela berba hori, Hirugarren Mundua, baina ikaragarri gustatu zitzaiola emakume nigeriarren egoeraren deskribapen errealista. Edwardek atzera bermatu eta esan zuen:

–Benetako bizitzan, ordea, ez da horrela, ezta? Emakumeak ez dira inoiz hain biktima gordinak, eta are gutxiago Nigerian. Nigerian badira emakumeak goi karguetan. Ministrorik boteretsuena emakumea da gaur egun.

Keniarrak hitza kendu zion eta esan zuen istorioa gustatzen zitzaiola, baina ez zela sinesgarria Chiomak enpleguari uko egitea; azken batean, beste aukerarik ez zuen emakumea zen eta, beraz, iruditzen zitzaion bukaera sinesgaitza zela.

—Den-dena da sinesgaitza —esan zuen Edwardek—. Asmo baten araberrako idazkia da, ez da benetako jendeari buruzko benetako istorio bat.

Ujunwaren barnean zeozer kuzkurtu zen. Edwardek solasean segitzen zuen. Jakina, idazmoldea bera mirestekoa zen, soraaa-ga-rri-a baitzen. Ujunwari begira ari zitzaion, eta Edwarden begiei zerien garaipena izan zen neska altxararazi eta barrez hastera bultzatu zuena. Gainerako partaideak begira-begira gelditu zitzaizkion. Ujunwa barrez eta barrez aritu zen eta besteak hari begira, eta gero bere orriak bildu zituen.

—Benetako jendeari buruzko benetako istorio bat? —esan zuen, begiak Edwarden aurpegian tinko—. Istorioan jaso ez dudana kontu bakarra da lankidea alhajiarekin utzi eta gero Jeepera igo nintzela eta gidariari temaz eskatu niola etxera eramateko zeren bai bainekien azken aldia izanen zela Jeep batean nindoala.

Beste gauza batzuk esan gogo zituen Ujunwak, baina ez zituen esan. Malkoak begietan metatzen ari zitzaizkion, baina ez zien isurtzen utzi. Amari deitzeko irrikan zegoen eta, etxolara zihoala, bere buruari galdetu zion ea sinesgarritzat joko zen, istorio batean, horrelako amaiera bat.